

Ihesi
Erdizaga,
harrobiak
mehatxaturik

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Denboraren makina
Piltdowneko
gizaki gezurtia

ARGIA

erdiko kainera

kultura eta aisia

Elkarrekin dantzatuko dute

EAEko dantzariak batu egin dira, eta ADDE Euskadiko Dantza Profesionalaren Elkartea eraiki dute orain arte banakako ahaleginak besterik ez zeuden orubean. Erne, ez gara-eta dantzari guztiez ari, dantza garaikide deritzon horren inguruan dabiltzanez baizik, nahiz eta beraiek etiketa hori, eta gainerako etiketa guztiak saihestu, ahalik eta kide gehien erakartzeko. Eta beharko dute, behar, ahalik eta gehienen indarra, dantzaren egoera elkarteko bozeramaleetako batek azaldu digun bezain kezagarria bada.

UNAI BREA



INIGO AZKONA

2007ko martxoaren 25a

ARGIA
29

Dantza garaikideak ahots bakarra eduki nahi du erakundeen aurrean



INIÖG AZKONA

ADDERen (Euskadiko Dantza Profesionalaren Elkarte) zuzendaritza-batzordea, zazpi edo zortzi lagun, iazko udazkenetik dabil lanean, Idoia Zabaleta gasteiztar koreografo, dantzari eta elkarteko kideak adierazi digunez. Orain, beren burua ezagutzera eman ondotik, indarrak batzen saiatuko dira, 100 bazkide inguru izateko itxaropenez. Sarreran esan bezala, momentuz EAEkoak dira guztiak, baina Euskal Herri osora zabaltzeko asmoa agertu dute.

“Une honetan, esan daiteke gauden guztiok dantza garaikide alorrekoak garela, eta hasiera batean zalantza izan genuen ‘garaikide’ hitza jarri ala ez, baina gaur egun kontzeptuak zabaldu egin dira, eta horregatik erabaki genuen ez jartzea”, argitu du Zabaletak. “Garaikide” esatea atek ixtea delakoan, nahiago izan dute “dantza” izena huts-hutsean erabiltzea, deiturarik gabe.

Ez dira gutuziatatik elkartu, behar-beharrezkoa dutelako baizik, Zabaletaren ustez, “aspaldidanik, egia esan”. Batez ere, erakunde publikoekiko solaskide sendoagoa behar dutelako, sendoagoa, eta bakarra. “Orain arte nor bere kabuz joan da beka eta dirulaguntza eske, eta horrela zaila da erakundee-kiko harremanari eustea. Haienzat ere pisu handiagoa dauka elkarte batek, askoren ahotza baita. Dantzan, lan motak eta estiloak oso desberdinak badira ere, kezkek, asmoak... oso antzekoak dira beti. Horien inguruan lan egingo du elkarteak”.

Kezkek eta asmoak, hortaz. Lehenbizikoen faltarik ez dute, behinik behin. Egoera, une honetan, kezkgarria baita Zabaletaren iritziz: “Herri honetan eta gauden egoera politikoan, badirudi energia guztia gai bat edo bitan ezartzen dela; kulturarenganako interesa, aldiz, oso txikia da. Egoera politikoak, indarkeriak... min handia egiten diote kultur garapenari, eta are handiagoa kultura garaikidearen hedapenari”.

Kulturari jaramonik ez?

Politikak ez ezik, kontsumo-joerek ere kalte egiten diote kulturari, ADDEko kidearen

esanetan. Telebistak eta DVDak ezarritako diktadura aurrean makurtzen gara, arte eszenikoei bizkarra erakutsiz. Eta arte eszenikoe-tan ahulena, gainera, dantza omen da, “geu gara anaia txikia, kultura txarto badago, oke-rrago dantza”. Dena den, Zabaletak dio Eus-kal Herrian kulturarenganako dagoen arreta eskasa dela kezka nagusia, eta ez aisialdian gailendu diren kontsumo motak.

Orain dela gutxi kaleratu diren datuen ara-bera, Espainiar Estatuan EAE da kulturari diru gutxien eskaintzen dion erkidegoetako bat, ez kopuru absolutuak kontuan hartuta, barne-produktu gordinaren (BPGd) por-tzentajea neurtuta baizik. Nafarroa, aldiz, zerrendako lehenengoetakoa da. Esan deza-gun, hala ere, EAEko portzentajea (%0,15) ia estatu osokoa (%0,16) bezain handia –edo txikia– dela. Nafarroakoa, berriz, %0,30 da.

Antzokietako programatzaileak oztopo

Arazoak, ordea, ez dira diru kontuetan gera-tzen. Bestelako galga batzuk ere baditu dan-tzak Euskal Herrian, Idoia Zabaletak honela salatzen duenez: “Hemen, koreografoi ez digute geure lana erakusten uzten ia. Antzo-kietako programatzaileak ez dute interesik guk egiten dugunaz. Programatzaileak bihur-tu dira antzokietako jabe, ikusleen jabe”.

Dantza garaikideari beti egotzi izan zaio ikusle gutxiren arreta erakartzea, eta hori ez du Zabaletak ukatzen. “Arte eszeniko guztietan dagoen arazoa da, arazo larria; jendeak nahiago du zinemara joan mer-keagoa delako, eta zinema bera ere gainbehera etorri da DVD eta enparauak direla eta”. Hala ere, gasteiztarrak berriz nabar-mendu nahi luke usteak erdi ustelak direla kasu honetan ere. “Orain, esate baterako, La Fundación elkarlanean dabil Artium museoarekin, bertan emanaldi batzuk

“Programatzaileak egiten dute nahi duten ikuslegoa. Beraiek sortzen dituzte, ikusleen nahiak ez badira, bai behintzat ohiturak. Eta ez dute gutaz ezer jakin nahi”

Idoia Zabaleta

Freakie etiketak dantzari kalte

“Dantzari kalte handia egiten dio gutaz zabaldu den uste batek”, kexu da Idoia Zabaleta. Koreografoak aldarrikatu duenez, mundu horretan dabil-tzan gehienek urtetako eskarmentua dute lanean, baina beti diru-laguntza handiegirik gabe egin behar izan dute aurrera. “Hori dela-eta beti ibili gara ekonomia ezkutuan, eta horrek, nola-bait, kultura alternatibotzat agertarazi gaitu. *Underground*eko zeozer omen gara, baina hori ez da inolaz egia. Hemen gaudenok lan egiten ari gara, lan profesionala, eta *kultura alternati-bo* etiketa horrek kalte egin digu. Beti agertzen gara *freakie* moduan, eta ez da hala”.

egiteko. Erakusten dutena ez da ulertzeko zailenetakoa, lan normalak dira, baina behar-bada Euskal Herrian erakutsi ohi direnak baino bereziagoak. Eta hala ere, oso harrera ona egin diote ikusleek. Era guztietakoek, gainera”.

Arazoa ez da, Zabaletaren aburuz, “ikusleak prest ez dau-denik edo ikusleei ez zaienik gustatzen”. Arazo nagusia, esan dugu dagoeneko, programatzaileak jarrera da. “Programatzaileak egiten dute nahi duten ikuslegoa. Beraiek sortzen dituzte, ikusleen nahiak ez badira, bai behintzat ohiturak. Eta ez dute gutaz ezer jakin nahi. Baina Euskal Herrian jendea prest dago euskal koreogra-foon lana ulertzeko”.

Artezblai Argitaletxearen azken argitalpenak

Yorick Liburudendan edo www.libreriyorick.com eskura dezakezu

					
De la gaseosa al champán Javier Ray de Sola	Pornografía José Montero	Antropología Domingo Palma	Objetivo Macbeth Fer Montoya	El actor creativo La actriz creativa Manual para coreógrafos Jesús Jara Alfredo Mantovani	El autor y su sombra El inicio del no Alfonso Sastra

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriyorick.com / info@libreriyorick.com

Moareri buruz

ADDEKO BAZKIDEAK, oraingoz, pertsonak dira, baina taldeak ere sartu ahal izango dira. Kontua da, Idoia Zabaletak dioskunez, talde batzuk pertsona bakarraren inguruan daudela gorpuztuta; ia gauza bera da taldearen izena esatea edo pertsonarena. Hala da, konparazio baterako, Ertza eta Asier Zabaletaren kasuan, edo 150 cuerdas eta Blanca Arrietarenean. Eta gauza bera esan genezake, azken batean, Idoia Zabaletaz eta Moare taldeaz.

“Moare ez da konpainia bat, baina konpainia modura defini genezake”, azaldu du lehenik eta behin gasteiztarrek, “sorkuntzarako egitura txikitxoa da, dantza garaikidearen alorrean”. 1992an elkarte bihurtu zenetik, Moarek entzute handia lortu du, Euskal Herrian alor horretan, behinik behin, lan egiteko eta pentsatzeko modu baten eredu bilakatuz.

Euren lanek arriskua dute abiapuntu. Zabaletarentzat ezinbestekoa da arriskua. “Halako erronkak behar ditut, ezagutzen ez ditudan eremuetan sartu, beti gauza berriak proposatu...”. Bera da ardatza, esan dugunez,

eta inguruan laguntzaileak izaten ditu, batzuk finkoagoak, beste batzuk lan jakinetan aritzeko baino ez.

Horrez gain, Zabaletak nahi luke Moare topaketa eta elkarlanerako gune bihurtzea, koreografo, artista eta oro har gorputzaz interesa duten pertsonentzat. “Konpainia ez ezik, dantzaren inguruan ikerkuntza egiteko elkarteak izan dadila, ekinez alde batetik eta hausnartuz bestetik. Hori baita dantzan dagoen beste gabezia hausnarketa, teoria, kritika, dokumentazioa... Hutsune handiak daude hor”.

Heziketa ere jorratu du Moarek, Gasteizen eta beste zenbait hiritan ikastaro laburrak emanez. Han ibilitako ikasle asko profesional dabilta orain, atzerrian. Horrelako ekimenak, txalogarriak izanagatik, ez dira nahikoa Zabaletak aitortzen duenez. “Izan ere, ADDEren lan ildo garrantzitsu bat hezkuntza izango da. Dantzaren gaineko adarretan badago zerbait, eskolaren bat edo beste, gutxi bada ere. Garaikidean, ezer ez. Hor badugu beste lan bat, lan zaila gainera, arlo hori ez dagokiolarako Kultura Sailari, Hezkuntzari baizik. Eta horiek, uneon, ez dituzte belarriak ireki nahi”.

Dantza garaikidea, ekoizpenean buru

Arte eszenikoetan ahulena dantza bada, haren barruan dantza garaikideari dagokio azkena izatea. “Dantza klasiako kontserbatorioak dauzka behintzat; garaikidean ez dago halakorik”. Eurak omen dira hala ere, sorkuntzan buru. “Euskal Herrian dantza klasiakoak ez du lanik ekoizten, edo ez guk beste. Gu ari gara sendoen zeregin horretan, eta baita dantza tradizionalako talde batzuk ere. Dena dela, dantza tradizionalaren egoera oso desberdina da, historian zehar desberdin garatu delako. Ez naiz gehiegi sartuko hor, ez baitut ondo ezagutzen. Baina bestela, dantza garaikideak ekoizten du lan gehien”.

Sektorearen inguruan dituzten kezkek Eusko Jaurlaritzari helarazi dizkiote honezkero, “edo horretan gabilta”. Zabaletak uste du, nolana ere, Jaurlaritzak ondo baino hobeto ezagutzen dituela hemen azaldutako arazoak, “eta uste dut gurekin ados daudela, oso gauza agerikoak baitira, izan”. Hala eta guztiz, oro har kulturarenganako arreta eskasa dagoela azpimarratu du berriro ADDEko bozeramaleak, administrazioak hainbat urrats eman dituela

Idoia Zabaleta
gasteiztarra
ADDEko kidea da.

aitortu arren. “Orain badago Kultura Plan berria, badago Xabide egiten dabilen dantzari buruzko txostena... Badirudi zerbait dagoela. Jaurlaritzan ere hasi dira batzuk mugitzen, ematen du bizpahiruk ardura dutela gaiaz, baina kultur politikak orokorra izan behar du, eta ez gutxi batzuren kontua. Modu horretan epe laburrerako planak baino ez dira lortzen, eta dantzak orain behar duena luzerako apustuak dira”. ■



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS